

Juan San Martin

Euskaltzaina

Trebiño

■ Aurten, errege Felipe II.aren heriotzako laugarren mendeurren ospakuntzak entzute handia izan dute, ez hainbeste Trebiño eskualdeko edo eskualdeagatik izan diren auzien berriak, aspalditik isil zeudenak eta orain berriz piztuak, eskualde hori Arabako edo Burgosko izan behar duen.

Norbaitek esan dezake, errege Felipe II.ak zer du ikustekorik Trebiñorekin? Espainiarentzat munduko inperiorik handiena eduki izan zuen errege harek berak zuzenean ez noski. Baina oroi errege Felipe II.aren historiagile bezala kronikari izan zen Esteban Garibai mondragoarrak Trebiñori buruz bildu zituenak, nortasunez eta garaiaztatik, baduelako bere garrantzia; baina egia da inori ez diodala irakurri kronikari harek zer zioen.

Beraz, har dezagun bere lan nagusia den: *Compendio Historial de las Chronicas y universal Historia de los Reynos de España* (Amberes, 1571). Lan horren bigarren liburukian (T. II., lib. XVII, cap. I) irakur dezakegu, feudal garai hartan, nor zen Diego Manrique, Conde de Treviño, Nafarroako erresuman. Hirugarren liburukian ordea (T. III, lib. XXIII, cap. XV), Nafarroako errege Santxo Azkarrak, Gaztelania eta Aragoitik, bere erresumaren mugak gordetzeko, adierazten du beste zenbait gazteluren artean nola eraiki zuen Trebiñokoa ere. Hara hitzez-hitz zioena: «... hizo en la Provincia de Alava el castillo de la villa de Treviño, y reparó y fortaleció mas la villa de Victoria».

Baina kronika horietan, E. Garibaik, gutxitan aipatzen du Trebiñoren izen soila, kasik beti *Treviño de Alava* dakar. Beraz, hara hor munduko Inperiorik handiena zen garai hartan nola agertzen zaigun Arabako eta ez Burgosko. Gaur egun oraindik Felipe II.az eta Espainiaren handitasunez amets egiten duten horiek, erregeren kronikariari ere jaramon egin beharrezkoa iruditzen zait.

Hortaz gehiago jakin nahi duenak, gogorik baldin badu behintzat, beste agiri batzuren iturriak ere aurkitu lezazke. Adibidez, Eusko Ikaskuntza erakundeak bere sorreratik laster argitaratu eman zuen liburuxka interesgarri bat: Joakin Jose Landazuri historigilearen *Treviño ilustrado* (1921) zeritzana, XVIII. mende azkenaldian idatzia eta inoiz argitaratu gabea, Juan Allende-Salazar zenaren hitzaurrez. Lan zehatza eta mamitsua benetan.

Adiskide nuen Joan Etxaide zenak behin baino gehiagotan esaten zidan, gure herriak, 1200. urtean Gaztelaniaren menpe erori zenetik ez duela pakerik ezagutu. Eta hori da Trebiñori gertatua ere.

J.J. Landazuriren liburuxka horren edukia honako hau da: 1. Trebiño konderraren lehen izena eta bere geografia. 2. Oraingoko adierazpen geografia eta egoera (XVIII. mende bukaerakoa noski). 3. Trebiño hiri sorrera Nafarroako errege Santxo Jakitunaren eskutik eta bertako gertaerak Gaztelaren eskura igaro arte. 4. Gaztelako koropean bildu geroztiko gertaerak. 5. Antzinako Trebiño konderriko Hermandadearen oroitzeak. 6. Trebiño konderrari eta hiriar buruzko berriak, elizaren aldetik. 7. Trebiño hiriaren gobernu politikoa eta orainagoko egoera. 8. Añastro, Pariza eta Saseta hiriak Trebiño konderrian. 9. Trebiño konderrari zituen burupetasunak, ohoreak eta libertateak.

Oñdotik, eraskin bezala, San Formerio martiriaren bizitza, Frai Juan Marietakoaren eskutik, eta, 1302. urtean errege Fernando IV.ak Trebiño hiriar berretsi zizkion burupetasunak.

Hitzaurregile zen J. Arrende-Salazarrek dioenez, Llorente kalonje eta historiagileak asmo txarrez baztertu zituela agiri horiek, egiazkoak ez balitzaz bezala, baina ez direla zalantzan jartzekoak, eta horri buruzko zenbait adierazpen eskani zizkigun.

Gaur egungo auzien aurrean, *Treviño ilustrado* delako liburuxka horrek merezi luke berriz argitaratzea, guzcion argigarri.

Trebiñoren aurretiko izena Uda omen zen eta izen hori ibaitik zetorkiola. Ondorean bere geografiako izen zerrenda dakar eta argi nabari da izenik gehienak euskarazko sustraidunak direla.

Gaztelako errege Henrikek (Pedro el Cruel-en semeak) 1366. urtean Trebiñoren aginte osoa eman omen zion Pedro Marrique-ri eta honen ondokoek zenbait aldakuntza ezarri zituztela. Hortik, gero, Duque de Treviño bihurtuko zenez.

Oroi feudal garaia zirela eta errege zein jaunek herria edo herriak, lege guzien gainetik, jaun eta jabe ahalik eta lotuen edukitzearen aldeko zirela. Jaunok lortu zuten Arabatik banatzea. Geroztik, historian zehar tira-bira asko erabili izan da, XVII. mendean Arabako Batzar Nagusiak egin zuten ahalegirik, baina alperrik, konstituzio desberdinak zituztelako lortu omen zuten lehenean jarraitzea.

Bertako biztanlegoa ordea, beti arrazoi praktikoetan oinarritu izan da, Arabaren geografia barnean kokaturik egotetik, arabar sentitzeaz gainera, merkatalgoan era guzietako harreman estua izatea, Gasteiz hiriburua hurbil izatetik administrazio harreman eginkizunak bizkortzea eta hobetzea, bigeintza berriak irekitzearen bultzapena eta abar. Ez dirudi txantxetakoak direnik eskualde hortako biztanleen nahiak, ez horixe.

Orain bertan hor dabilta, La Puebla de Arganzonoko bide-egiturak bideratu ezinik. Hau da hau!, XX mende bukaeran, bidea bideratu ezinik. Onak gaude gu Europa Batua bultzaz mundu hobe bat lortu ahal izateko. Alajaina!

Inguru berean intelektualik ez da falta izan Trebiño Arabaren alde oihukatzeke. Adibidez, F. de la Fuente Marquinez de Beltrán trebiñoar jakitun eta irakasle zenak *Universitas* (u/g) argitaratu zuen duela berrogeirenbat urte. Bertako atal luze bat Trebiñori eskainiz. Erudizioz bete eta humorerik ez zaio falta, baina mindurarik ere ez. Bere oroitzeak eta sentipenak hor isurtzen ditu. Erudizioa bai, baina zentzu-orekan huts nabariak ditu. Hala ere, Trebiñoren epopeia azaltzen du, *«feudo insoportable de Castilla»* aldarrikatuz. Arabar sentitzen zen eta berri asko eskaintzen ditu. Merezi du lan hori ezagutzea.

Feudal garai hartan, kondea izanik jaun eta jabe, aski zen gizon bakar horren nahia herri guziaren gainetik herritarren zoriaz jabe izateko. Historiak, zoritxarrez, era hortara jotzen zuten.

Baina, gaur egun, ulert ezinezkoa edo inoiz ulertuko ez dudana, zera da, demokrazia garaian, herri guziaren, edo herritar gehiengoaren, nahiaren bete ezina. Non daude giza-eskubideak? Non da gizonaren logika? ■

Nagore Aranburu



Titiriteroak

ritsi da urtero bezala ikasturtearen hasiera petrala, eta honek dakartzan burukominak nabari dira ikasle izatea erabaki duten guztietan. Nik ikasturte berezi bat aipatu nahi dut gaurkoan, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra (T.A.E). Orain lau urte ekin zion bere bidari ekimen berri honek, euskal antzerkigintzako izen garrantzitsuak bultzatzaile zituelarik. Gipuzkoan Antzerti eta Errenteriako Niessen eskolak desagertu zirenetik hutsune nabarmena zegoen antzerkira hurbildu nahi zuen jendearentzat, eta arazo horri konponbide bat eman nahian hasi ziren profesional hauek proiektu hau gorpuzten.

Urte hauetan zehar klaseak kokatzeko leku finkorik ez, eta alde batetik bestera ibili behar izan dute tailerra osatzen duten ikasle eta irakasleak. Oraingoan ordea, bestelako hasiera behar zuen ikasturteak. Egiako kultur etxean arte eszenikoak lantzeko sei gela prestatu ziren, eta horietako bi, tailerraren erabilpenarako izango zirela hitzartua zegoen. Baina kultur etxea txiki geratu da bertan jaso nahi izan diren iharduera kultural guztientzat, eta arte eszenikoentzat behar zuten sei gela haiek, hirtan geratu dira. Murrizketa hau dela medio, antzerki eskola lekurik gabe geratu da. Beraz, tramankulu guztiak hartu eta titiritero izenari zentzua emanez, han eta hemen karpa kokatzen ibili beharko dute T.A.E-koek berriro ere.

Eskola anbulante honen ikasle ohi bezala hanka sartze hau eskertu nahi nioke udalari, antzerkilari berriei lanbide honetan nola ibiliko diren argi eta garbi utzi izanagatik. Gaur hemen eta bihar auskalo!

Antzerkia ekimen olinpiko izenda dezaten zain geratzen gara, *titiriterotegi* bat eraikita ikusteko ametsa dugun guztiok.

Kornera

Mikel Elorza

Izenen gainean, azpian

■ Izenak izana duela esan ohi dugu euskaldunok. Ez dakit nik. Atzo Madrilen hasitako epaiketan Publio Cordon liteke izenik erabiliena, baina ez dagokio izanik. Bazen, baina ez da. Alegia, plazartu diren datuen argira Publio Cordon zena bada, baina jada ez da Publio Cordon. Jarriko zion beste izenik kokotero baten gerizpeko bere izan berriari. Hori areago argitu lezakeena Albert Martinez Herrando da, Poliziak GRAPON sarturiko satorra. Bahitzaileak atxilotzea honi zor zaio, baina Albert Martinez jada ez da. Bazen, baina ez da. Epailiek behin eta berriz galdetu arren Poliziari, izen horretako izanik ez omen da. Jarriko zion beste izenik soldata on baten gerizpeko bere izan berriari.

Dena ez da, baina, sasikoa. Felipe Juan Froilan de Todos los Santos, Espainiako errege izateko *parrilla*-n hirugarrena, herenegun bataiatu zuten, Jordan ibaitik propio ekarritako urarekin! Izan bada eta, bai pozgarria, gurasoak bezala (neurriaz ari naiz) handia omen da. Beharko izan halako izena betetzeko!

Mattin

L A P h I T Z A

